

Batez bestekoa sistemako finantza erakunde nagusien buruan kokatzen da

Kutxabankeko langileek urtean 94 ordu eskaintzen dizkiote prestakuntzari pertsona bakoitzeko

- **Prestakuntza maila altua bezeroentzako kalitate goreneko zerbitzu baten alde Erakundeak egin duen konpromisoaren erakusle da**

2022ko apirilaren 21ean. Kutxabankeko plantillak **94 ordu** baino gehiago eskaini zizkion prestakuntza espezializatuari 2021ean, aurreko urtean baino % **19** gehiago. Honela, pertsona bakoitzak batez besteko prestakuntzari eskainitako ordu kopurua **sistema osoko erakundeen buruan** kokatzen da. Datu honek erakusten du Kutxabankek eta bere giza taldeak talentua prestatzeko, sustatzeko eta atxikitzeko, eta bikaintasuna eta motibazioa sustatzeko etengabeko hobekuntzaren alde egiten duten apustua, Erakundearen diharduten pertsonen garapenaren zutabeetako bat baita.

Kutxabankek kalitate goreneko zerbitzuaren alde eginiko apustuaren ondorioetako bat da, eta **bezeroekin eragiketak formalizatzen dituzten merkataritza-kudeatzaile eta zuzendarien** kasuan, % **100ek LCCI, MIFID II eta IDD** akreditazioak dituzte.

Hauek dira banku-negozioarekin zuzenean lotutako gaitan ematen diren ziurtagiri nagusiak, hau da, **higiezin** kreditu-kontratuetan aholkularitzan, **inbertsio-tresnei** buruzko aholkularitza espezializatuan eta **aseguruen** alorrean, hurrenez hurren.

Erantzun estrategiko honek garapen pertsonalean eta profesionalean kualifikazio handia baliatzen die langileei, eta ziurtagiriak eskuratzea inbertsio-tresnetan, higiezin kreditu-kontratuetan eta aseguruetan. Taldeko **langileen %90** inguruk arrakastaz gainditu ditu ikasketa prozesua eta akreditazio espezializatu hauek lortu ahal izateko beharrezkoak diren probak.

Prestakuntza zentro desberdinetan ematen da, erantzuten dion irakasgaiaren edo beharraren arabera. Hala nola **Merkataritza Eskolan, Finantza Eskolan** eta Kutxabanken **Zuzendaritzako Eskolan**. Besteak beste, bezeroen arreta eta kudeaketa, araudia betetzea, zibersegurtasuna, fiskalitatea, lidergoa, digitalizazioa edo iraunkortasunari buruzko programak eskaintzen dituzte.